

XABIER ERKIZIA

Esther Ferrerri elkarrizketa

Elkarrizketa hau Artelekun egin zen, joan zen maiatzaren zazpian. Testu honek Esther Ferrer artista-performerrak -Juan Hidalgo eta Walter Marchettiekin batera ZAJ taldearen kide denak- mundu soinudunari buruz dituen eta izan dituen ideiak eta esperientzak jasotzen ditu, baita entzumenean gertatu diren aldaketei buruzkoak, teknologiak musika lengoaiari eraginari buruzkoak, eta hirurogeita hamarreko urteetako eta gaur egungo sorkuntzaren arteko erlazioari buruzkoak ere.

XE Zure esperientzia, hertsiki musikala ez bada ere, oso interesgarria da, zentzu klasikoan behintzat. ZAJ kolektiboan lan egin duzu, Walter Marchetti eta Juan Hidalgorekin, besteak beste. Zergatik uste duzu musika dela ZAJen ibilbidearen eta zure arte ibilbidearen abiapuntuetako bat?

EF Lehenbizi, gauza pare bat. Juan eta Walter konpositoreak ziren eta, beraz, konpositore prestakuntza dute. Nik sekula ez dut konpositore prestakuntzarik izan, baina asko gustatu izan zait betidanik musika, eta kontzertu pila itzela entzun dut ume-umetatik; beharbada horrexek bultzatuko ninduen haiekin elkartzera, azken batean zure bidean dagoen jendearekin egiten baituzu topo. Guretzako erreferente komuna Cage da, badakizu. Musika, nik Cage ezagutu nuen unetik aurrera, beste gauza bat da. Niretzat musika ez da gauza bera, eta benetan aldatu dena entzuteko modua da. Beti esaten dut niri Cagek entzuten irakatsi didala, musika entzuten, baina baita mundu honetako soinuak eta zaratak entzuten ere. Nire ingurune soinuduna unibertso osoa hartuz hazi da. Lehen, musika entzuteko sinfonia bat entzuten genuen, horixe zen musika, eta beste guztia, berriz, ez. Cagek dioenean mundu soinudun osoa musika izan daitekeela eta soinu guztiak musika direla, eta hori esperimendatzen duzunean, esperimendatu daitekeen gauza bat baita, ordaindu beharrik ez dena, niretzat hori... Eta gainera, musika-ekintzaren mundua ere hor dago, ezen gu hasten ari ginenean, beno, ni hasten ari nintzenean, orduan ari ziren horrela funtzionatzen hasten. Beraz, dena musika izatea baino gehiago, edozein ekintza musika izan daiteke. Orduan zu, ekintzaren munduan zaudela, zuk zeuk uste baino askoz gauza konplexuago eta interesgarriagoa egiten ari zara, hain zuzen, zure mundu soinuduna eta mundu kontzeptuala zabaldu egin direlako musikaren bidez.

XE Zein da, zure iritziz, musikaren abantailarik handiena? Zergatik bultzatzen gaitu musikak horrelako praktikatara eta beste diziplina batzuek beste batzuetara? Zergatik bultzatzen gaitu musikak ekintzara?

EF Mundu soinudunean bizi garelako; bizitza soinua eta mugimendua baita. Hortxe dago Cageren esperientzia, isiltasuna lortzearen intsonorizatutako ganberan sartu eta bi soinu entzuten zituela konturatu zenekoa: odolarena eta nerbio-sistemarena. Bizitza soinua da, soinurik eza heriotza da. Soinu kontzeptutik abiatuta edozein gauza egin dezakezu, izugarri aberatsa da, mugagabea. Mundua, esferak, soinu unibertso batean bizi gara. Soinutik abiatuta dena egin dezakezu, eta egiten duzu; nork bere bokazioaren arabera. Horixe da soinuaren aberastasuna. Gu soinu-igorleak gara, tresna bat gara. Nire ustez, lehenbiziko musika, lehenbiziko tresna, ahotsa izan zen, ahotsa eta dantza. Gure izatearen beraren muinean dago, eta artearen oinarrian. Ez dut esango Altamira eta Lascaux egin aurretik ere gizakiak dagoeneko kantatzen zuenentz... Hau guztia aztertu duen jenderik bada, eta musikologiari buruzko oso liburu interesgarriak ere badira.

XE Azken urteotan, bizi garen egoera soziokulturalarekin batera, ingurune soinuarena ere aldatzen ari da. Azken urteotan sortutako aldaketek musikaren kontzepzioa aldarazi dutela uste al duzu?

EF Bai, jakina. Ikusi besterik ez dago musika instrumentaletik elektronikarako aldaketa, horrek duen aukera pila itzelarekin... Aukera sorta eta soinu ezberdin guztiak... Biolin batez soinu asko eta asko atera ditzakezu, egia da, baina den-denak x erregistro baten barnean daude; erregistro horiek zabalago egin dira elektronikaren bidez. Ez soilik elektronikaren bidez, baizik eta baita gauza ezin txikiagoez ere, inurriak entzutera ere iritsi baikara. Gure ingurune soinuarena zabaltzen ari da, begi-bistan dago, eta harekin batera baita soinuez dugun pertzepzioa eta analisisia ere. Nik soinuari buruz egiten dudana analisisia –ez soilik musika-soinuarena, nahiz eta nagusiki horri buruzkoa den– eta hamazazpi edo hemezortzi urte nituenean egiten nuena zeharo desberdinak dira. Bizi naizen unibertso soinuarena erabat bestelakoa da, soinudunagoa da, isiltasun gutxiago dago. Beno, jakin badakigu isiltasunik ez dagoela, baina isiltasuna aipatzen dugunean esan nahi dugun hori, egia da, gaur egun ez dagoela ia-ia. Begira, behin batean Cagerekin geunden, Amerikan, *Tell Your Eye* izeneko musika jaialdi batean; Cage gonbidatu zuten, eta nire senarra, Tom, ere bai. Astebete egin genuen elkarrekin, eta behin batean mendira joan ginen perretxikotara; Cage mikologoa zen, badakizu. Coloradon geunden, mendian, Mendi Harritsuetan, hegazkinak etengabe ari ziren pasatzen, eta soroetan lanean ari ziren makinak ere entzuten genituen; eta halako batean norbaitek esan zidan, ez dakit Tom edo Cage izan zen, liburu batean irakurria zuela gaur egun, gure mundu garaikide honetan, munduko edozein tokitan, zauden-zaudenean, edozein basamortutan edo dena delakotan, gehienez bost minutu eman ditzakezula soinu mekaniko bat entzuteke. Gehien aldatu dena, eta horixe da gizarte garaikidearen arazoa, zarata da, soinu etengabea; berdina da zein den, kontua soinua etengabea dela. Gero dezibelak daude, baina garrantzitsuena, nire ustez, isiltasunik eza da, komatxo asko jarrita nahi baduzu ere, baina normalean isiltasun deitzen dugun horrexen falta. Horixe da nire mundu soindunaren barneko aldaketarik funtsezkoena.

XE Aipatua duzu lanabes berrien kontua, eta soinu mikroskopikoak, ultrasoinuak eta infrasoinuak entzuteko aukera. Mundu berri bat, hots, soinuarentzako dimentsio berriak zabaltzen dituzten aldaketa teknologiko hauek guztiek nolako eragina izan dute, zure ustez? Nola eragiten diote gure pertzepzioari eta soinuaren beraren garapenari? Nola eragiten digu normalean entzuterik ez dugun soinuez lan egin ahal izateko aukera horrek, zure iritziz?

EF Bi eratako eragina izan daiteke: lehenik, gero eta modu mekanikoagoan bizi garela esan dezakegu. Izan ere, ez dakit makina bihurtuko garen, zeren eta dagoeneko baditugu telefonoak eta era guztietako tresnak... denetarako aparatuak behar ditugu. Guk geurez ezin ditugu soinu horiek aditu, bitartekari bat baliatu behar dugu. Eta orain esango didazu biolina ere bitartekari bat dela, ezta? Baina askoz kontrolagarriagoa da, eta eskuragarriagoa, perkusioa bezalaxe, ezen dena izan daiteke perkusio bat. Hemen mendekotasun bat dago, bitartekoak behar dituzu eta. Eta bitarteko horiek normalean izugarri garestiak izaten dira. Eta horrenbestez izugarri baldintzatzen da kultur politika osoa, eta baita artistaren egoera ere. Artista batek, bere musika egiteko, diru asko-asko behar badu, boterearen agindu askoren pean egon behar du, botereak ezarritako bideetan barrena ibili behar du, huraxe delako dirua duen bakarra. Ildo horretatik, artistak gauzak sortzeko duen askatasuna, neurri batean, askatasun galera batez ordaintzen du. Eta hau, gaur egun, izugarri antzematen da kultur munduan. Bideo guztiak, gauza horiek guztiak, ezen argazki batek 60.000 euro balio baditu, nork du diru hori? Bi aukera dituzu, lapurtzea, edo lapurtzen dutenek, botereak alegia, zuri ematea. Eta hor mendekotasun bat dago.

Guk ZAJ egiten genuenean, nik neuk oraindik jarraitzen dut egiten, oso modu pobrean egiten genuen lan. Nik beti pobre egiten dut lan, horixe delako askatasuna ematen dizun bakarra. Hautsontzi bat behar badut, edozein tokitan aurkitzen dut. Lehenik, behar dudun hautsontzia jarriko dut hemen, eta kafea hartzera joango naiz, eta itzuli orduko lapurtu egingo didate, baina berehala aurkituko dut beste hautsontzi bat. Baina hemen lau ordenagailu eta bost bafle baldin baditut, *flight case* edo polizia bat jarri behar dut, horiek zaindu diezazkidan. Orduan, bete-betean ari naiz sistema errepresiboan sartzen, eta horretantxe datza arazoa. Obra hauetako asko eta asko sortzeko mendekotasun ekonomikoan zaude, laborategi bat behar duzu, gauza pila bat behar duzu, gizarte ikuspegitik ari garela.

Norbanakoaren ikuspegitik, berriz, sorkuntzarenetik, zoragarria iruditzen zait, baina noski, arazoari alderantziz helduko diot. Ultrasoinuetara jo dezakezu, baina lehen zeharo ezinezkoak ziren mailetaraino igoaraz ditzakezu dezibelak. Ez dakit Phill Niblock ezagutzen ote duzun. Ba al dakizu zenbat dezibel jartzen duen? Gor belaunaldiak sortzen ari da, eta horiek dagoeneko ezin dute hainbat soinu aditu, tinpanoak hautsita dituztelako. Eta horrek eraldatu egiten gaitu, zalantzarik gabe, eta eraldatu egiten du zure entzuteko modua, eta eraldatu egiten du zuk entzuterik duzuna eta ez duzuna. Beharbada Beethovenen sinfonia batek ez dizu ezer esaten, ezin duzulako hainbat ñabardura aditu, fisikoki hainbat ezgaitasun eragiten dizun musika mota hau entzuten ari zarela. Beste soinu unibertso batean sartzen gara, jakina, eta horretan seguruenik ez da beharrezkoa izango musika klasiko mota hau entzutea, bestea entzungo dugulako; eta zergatik ez, bada? Dena aldatzen da, eta diplodokoak hil ziren bezalaxe hil daitezke ere Beethovenen sinfoniak. Ildo honetatik ni ez naiz fariseua, oso ongi deritzot.

Infratxikiaren esparruan abantailak eta desabantailak dituzu, hala nola besteek zugan lan psikologikoa egin ahal izatea eta zure portaerak baldintzatu ahal izatea, gauza ia-ia subliminalak dira eta. Arrisku bat da, baina bizitza arriskua da, eta arriskurik ez badago ez dago bizi izateko inolako interesik. Ildo honetatik, nik ikusten dut dezibel kopuru itzel hauen eta infratxikiaren artean soinu unibertso miragarria dagoela, eta honek jeinuzko artistari, jeinuzko konpositoreari edo soinua lantzen duenari orain arte ezagutzen ez genituen soinu munduak sortzeko aukera ematen die, arrisku guztiak ere berekin baditu ere. Horretara jo behar dugu. Eta honetara iritsita, betiko arazoa dugu parean: zer egingo dugu horrekin? Erabili egingo dugu, akaso, kafetegi batean dagoen jendeak, konturatzeke, x portaera izan dezan, entzuten ari dela ere ez dakien zerbait entzuten ari delako? Beste gauza batzuk aditzeko fisikoki ezgai direla-eta, askoz soinu unibertso murriztagoa izango duten gor belaunaldiak sortzen ari ote gara? Edo oreka aurkitu beharko dugu. Esate baterako, zuk niri elkarrizketa hau egitea, zuk hau planteatzea bera, duela urte batzuk inork ez zion bere buruari horrelakorik planteatu ere egiten. Edo soinu munduak inolako eraginik izan ote zezakeen kontua ere... Bai, itsuei, gorrei eta abarri buruzko azterketak egiten zituzten. Zeren eta, oso kale zaratatsu batean, itsuak galdu egiten dira, eta gorrek istripu gehiago izaten dute. Inguruan soinu asko-askoko unibertsoa dutenean, elbarriak are elbarriago izaten dira. Besteak beste, ezin dutelako semaforoaren soinurik entzun, ezin baitute aditu. Gaur egun, lehen hala moduz igarotzen zen arazo pila bat planteatzen dugu. Musikaz ari garenean, musikaz ari gara, eta gainera gaur egun soinuez hitz egiten dugu, eta musikaren barnean sartzen diren zaratez. Cagex oso gauza polit bat esan zuen: "Zarata batek gogaitzen zaituenean, minutu batez entzun ezazu. Gogaitzen bazaitu, beste minutu batez entzun ezazu. Gogaitzen bazaitu, beste minutu batez entzun ezazu, eta bost minutu igaro orduko konturatuko zara dagoeneko ez zaituela gogaitzen, alderantziz, gustatu egiten zaizula".

Ohitura kontu bat da, eta baita entzuteko moduarena ere. Niri Cagex entzuten irakatsi dit, eta ez soilik musika; entzumena ernarazi dit. Horixe da gehien eskertzen diodana, eta hortik aurrera bere musikaren sonoritate guztiak, baina hori beste kontu bat da. Nik uste dut zuk egiten duzuna egiatzko egitate bat dela, eta horrek guri eragiten digula. Zuk egiten duzun lana, izan ere, duela hamabost urte, duela hogeit hamar urte inori ez zitzaiokeen bururatu ere egingo.

XE Gauza hauek guztiek, zalantzarik gabe, ingurune soinudunari eta industriari eragiten diete. Historikoki, soinu-esperimentazioak ez du parte-hartze handirik izan industriaren mugimenduan, hainbat arrazoi tarteko, baina badirudi azken urteotan badela musika mota honen sozializazio moduko bat. Esate baterako, eskuragarritasunari dagokionez, orain arteko arazorik handienetakoa, egoera maila berean jarri da. Nolako eragina izango du honek etorkizunean, zure iritziz? Belaunaldi berri bat sortuko al du?

EF Zalantzarik gabe. Gaur egun neska edo mutiko batek ordenagailua eros dezake, eta horrenbestez laborategia alboan eraman dezake musika-laborategira joan beharrean, hau da, konposizioak eta grabazioak ere alboan eraman ditzakete. Musikariaren, konpositorearen irudia aldatzen ari da; belaunaldi gazteek soinuak konbinatzen dituzte eta horretarako ez dute inoren beharrik izaten. Horrek izugarritzko indarra eman die sistema batetik kanpo ere sortzeko, hau da, lehen aipatzen ari ginenaren, hots, botereak ezarritako baldintzen pean jardun behar horretatik zeharo bestela aritzeko. Inoren mendean aritzeke, mundu soinudunak sortzeko askatasuna eman die, ordenagailua, bitartekoak alegia, erosteko dirua eduki hutsez. Industria ongi arduratzen da, jakina, urtero-urtero gauza berriak ateratzeaz, erosten jarraitu behar izan dezaten; baina ikusten duzu orain unibertso soinudun zoragarriak sor ditzaketela etxean, ordenagailua erositara, eta inoren mende egon gabe. Produzitzen dutena gustatzen ote zaizun kontua beste historia bat da. Baina zalantzarik ez dago horiena sortze lana dela, batez ere collageen bidez burutua -ez baitira beraiek asmatuak, Stravinskik berak dagoeneko erabiltzen zituen-eta, lehen aipu esaten zitzaaien horiek, alegia-. Baina bada honetan interesatzen zaidan gauza bat, birziklatzea: hauek birziklatu egiten dute, diskoak hartzen dituzte, eta sortzen ari dira. Orain hurrengo, duela astebate egon nintzen horiek entzuten. Gauza bitxietako bat zera da, azkenean horietako gehienek, ez dakit musika prestakuntza klasikorik duten edo ez, musikaren modulazioak eta amaierak lantzen dituztela, sinfonia baten antzera neurri batean. Oso bitxia da, baina arrazoa zera dugu, bere lengoaia aurkitu behar dutela; kontu egizu zenbat urte igaro diren, argazkiak berak ere bere lengoaia aurkitu duen arte. Baina oso bitxia da, gazte hauek musika klasikoarekiko espiritu-independententziaz aritzen dira, asko eta asko ez dira joan, ezta joango ere, kontserbatorio batera, are gehiago, askok eta askok "si" bat zer den ere ez dakite, baina jotzen duten eta partitura ateratzen zaien aparatu horiek dauzkate. Horrek, zalantzarik gabe, eraldatu egingo du musikaren mundua, eraldatu egin du dagoeneko, eta eraldatzen jarraitzen du. Esate baterako, Phill Niblock ez da konpositorea, argazkilaria da, eta argazki-irakaslea izan zen urte askoan Columbia Universityn. Alabaina, haren musika Tomi, nire senarrari -musika matematikoa egiten duen minimal bat da- izugarri gustatzen zaio, eta niri ere bai. Phillek egiten duena ordenagailuari esker egiten du, nahiz hark beti soinu instrumentala baliatzen duen. Soinua espazializatu egiten du.

XE Beharbada egoera hau sortzen duen faktoreetako bat sortzailearen eta entzulearen arteko tartea nahastea da. Lanabesak eskuragarriagoak izatean, edozein entzule sortzaile izan daiteke, eta edozein sortzaile, berriz, entzule.

EF Jakina, sortzailearen irudia desmitifikatu egiten da eta, neurri batean, vedette fenomeno ahulagoa da, zeren eta gazte hauek hantxe baitaude bere gauzekin, hurbil... Nahiz oraindik ere baden vedetterik, bazter guztietan topatzen dituzu. Hasieran ez zitzaien interesatzen, beste gauza bat zen, baina sistemak dena berreskuratzen du. Pentsa egizu, terrorismoa bera ere berreskuratzeotan dago!

XE Sortzaile hauetako asko Cagek berak planteatutako eta urteetan zehar garatu izan diren ideiak berreskuratzen ari dira. Baina une honetan, eskuragarritasunagatik agian, ideia horien birbaloratze bat dago. Zure ustez, horrek

eraginik izango al du entzuleengan oro har, soinuaren pertzepzio edo aditze orokorrean?

EF Ezbairik gabe. Artean dudan eskarmentuak erakusten didanaren arabera, aurrerapauso bat egiten denean atzerapauso bat egon delako da, halatan oinarri bat topatu baitu aurrerantz jauzi egiteko. Orain hirurogeiko urteetako revival bat gertatzen ari da, ez soilik musikan, baizik eta, nagusiki, pinturan. Tokioko Jauregiko sortze lanak ikusten ditudanean, nire buruari zera galdetzen diot: hauek ez ote zuten, bada, ezagutu hirurogeiko urteetan eginikoa? Egiten ari dira, eta material berberak erabiliz gainera. Ez zuten akaso hura ezagutuko, baina beharbada bai, eta horixe dukete orain oinarri. Eta Kubismoa, non oinarritu zen? Afrikako eskulturaren. Fauvismoa, Cobra, Art brut... nire eskarmentuak dioenez, atzerantz egiten duzu pixka bat, aurrerako indarra hartzeko, pertika-jauzia egiten duenak bezalaxe. Horixe ari gara bizitzen, nik uste. Aukera berriak ere badira, puntu batetik abiatzen direnak; eta puntu hori, esate baterako, Cage izan daiteke, besteak beste. Puntura itzuliko gara, beste norabide batean beste jauzi bat egiteko. Eta honek, nik uste, eragina izango du, ez soilik konpositoreengan, baizik eta baita nigan ere, entzuletzat baitut neure burua; zalantzarik gabe. Batik bat ikusten dut dagoeneko hasia dela gazteak eraldatzen. Ume txikiengan ikusten baitut. Egia da gaur egun ume txikiak guk baino interes handiagoa sentitzen dutela soinu munduarekiko, ezen gu txikiak ginelarik haurrentzako kantuez, kaleko jokoez, eskolaz baldintzatuta geunden. Eta egungo umeak, jaio orduko ia-ia, manipula dezakeen aparatatu bat dauka eskura, lan egiteko bali dezakeen aparatatu bat. Nire ilobak hiru urte besterik ez du, eta dagoeneko sekulako trastekeria dauka. Ildo honetatik, argi dago bizi orduko mundu soinudun batean bizi direla, baita musika mundu batean ere, esate baterako nik neuk ezagutu nuena baino askoz aniztasun handiagoa duen batean; eta horrek aldarazi egingo du mundua soinu gisa bizi izateko modua. Eraldatu egingo baitu, eta haurrak desberdin egingo ditu, konbentziturata nago zeharo. Ez dakit hobeak edo txarragoak izango diren, hori beste kontu bat da, baina garbi dagoena zera da, haien garuna, soinuak gudan eraginik baldin badu behintzat, ezin dela gurearekin alderatu.

XABIER ERKIZIA Audiolab-Artelekuren arduraduna da. Beran bizi da. ESTHER FERRER artista da. Parisen bizi da.